

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Gure-gurea den bakarra gure erabakiak dira

Kataluniak atrapatu eta hari begira jarri gaitu. Ez da gutxiagorako, asko dugu euskaldunok jokoan han, gure askatasun nazionala besteak beste. Ikaragarria da Kataluniako herriarena, ederra, inspiratzailea, iraultzailea. Aldaketa-rako lehenik nor diren ulertu eta zer nahi du-ten erabaki, hori izan dute abiapuntu. Ez izan beharko luketena pentsatu. Izan ere, pentsatzen dugunak baino, garenak gidatzen ditu gure erabakiak; erabakitzen dugu-na gara, gure-gurea den bakarra gure erabakiak dira.

Kataluniara begira egon behar da, dudarik ez. Begia han eta gogoa hemen, gurean aurreratzea haientzat ekarpen onena delako. Hartara, beharrezkoak diren el-kartasun ekintza guztiekin batera, hemen erakutsi behar dugu maila. Eta horren inguruan, azken denboretan kez-ka nagusi dabil gurean: pobretze politiko eta kultural in-duzitua bizi dugula, gure kulturaren eta tradizioen one-na ateratzeko gai ez garela, pultsua jaitsita antzematen zaiola herri honi, eta ia apo-kalipsiraino doazen diagno-siak: zainketa intentsiboetan dagoela herri hau, koma ego-era paliatiboan. Ez nator bat, inondik inora ere, diagnosi medikalizatu horiekin. Ez dut uste shock tratamendu beharrean edo hil ala biziko atakan dagoenik Euskal He-rria. Niretzat, txotxolokeria ugari dabil azterketa horie-tan, eta fundamentu gutxi.

Kataluniak inbidia ematen digula? Ulergarria da. Hango agintarien maila politikoa hemengoekin konparatuta, arazoa agerian geratzen da: mailarik ez dago. PPrekin bat eginda espainiar izateaga-tik dirua kobratzea euskal politika ona egitea dela sal-tzen digutenek ez dute mailarik. Bai, ordea, botoak. Gehiago ala gutxiago gustatu, Espainiak "pinto-pinto ekar ezazu pilota txikia" agindu eta otzan betetzen dute-nek irabazten dituzte hauteskundeak. Telebista publiko-ra "Txomin del Regato" bueltatu da, zortzi euskal abize-nen metaforarekin; onbera, astakilo xamarra baina exotikoa, noblea eta otzana den euskaldunaren karikatu-ra. Jakina daudela EAJri direnak eta bi esateko, direnak eta bost egiteko arrazoiak. Horretan tematzea, hori ildo egitea, hortik atarramentu onik etorriko den edo ez, bes-te kontu bat da. Inbidia sentitzeko, baina, ez da Katalu-niarraino joan behar. Hemen bertan, Bidasoaz bestalde,

jorratu diren dinamikek eta loratu den kultura politiko-ak inbidia ematen didate. Eta harrotasun existentzial bat. Eta itxaropenerako motibo asko: instituzionaliza-zioa lortzeko erabilitako modua, presoen aferan zein ar-magabetzean nola jardun diren, laborantzan jorratu di-tuzten proiektu ederrak... Banatuta ezina eta batera etekina datorrela jakinda aritu dira. Inspiratzailea bene-tan. Hori da bidea, hori da herria egitea. Ipar ala hego, Euskal Herrian horren ehunka adibide koloretsu eta osa-sungarri ditugu. Horientzat denontzat lur komun bat egitea, ardatzak eta sinergiak jorratzea, sare herritarrak trinkotzea eta mamitze horrek une zehatzetan eskatuko duen kristalizazio politikoa behartzea. Horra gakoa.

Herririk gabe politika hilda dago. Herria, komunitatea, haizeak hautsa bezala dispertsatzen ari da. Praktikan eta imajinazioan, atomizatzen ari gara. Beldurtuago, zati txi-ki-txikitan banatuago, lehenik gurea eta gero besteena

Maiuskulaz idatzitako politikak herria egitea du ardatz. Elkartasun soziala ehuntzen du, mundu berri baten gogomira goratu. Absentzia dirudienean itxaropena presente egiten du

bizilege. Lotura, enpatia eta adeitasuna itzaltzen eta bo-terea, estatusa eta fama balioa hartzen doaz. (Euskal) bi-zitza politikoaren berreskurapena komunitatea biziago-tzetik pasatzen da, herri gogoa herri giro egitetik. Ez gobernuarena ezta merkatuarena ere ez den, eta sarri gu-txietsia izan den, beste eremu hori indartzetik. Herria egitea ardatz duen kulturak beste politika bat sortzen du. Egiazki, maiuskulaz idatzitako politika dena. Elkartasun soziala ehuntzen du, mundu berri baten gogomira pro-posatuz eta goratuz. Itxaropenak absentzia bat dirudie-nean, presente egiten du. Jendeak bolantea, kontrola, be-re esku hartzea ahalbidetzen du.

Ez dago formula magikorik. Talde ekinak, determina-tuak eta ongi antolatuak behar dira, lana erruz eta serio egin behar dutenak, eta denok gaude interpelatuta. De-nok egin dezakegu, inori baimenik eskatu gabe. •